

**Kontzertuak
gurean
Santa Zezilia
musikarien
eguna dala eta**

12. orrialdea

**Bidean Galduta eta Esti eta
Olatzek aitamen berezia
Imanol Cover lehiaketan**

Euskadi Irratiak antolatutako Imanol Cover lehiaketako finalera heldu ziran Arratiako talde bi honeek, aitamen berezia jasoz. Ainara Ortega gipuzkoarrak irabazi eban lehiaketea. 13. orrialdea



**Aitzol Atutxa
Euskal Herriko
aizkora
txapelketako
finalean**

10. orrialdea

TOKIKOM

begitu

urte

arratia ubide zeberio

174

2012ko zementiaren 15a
hamabostekaria
www.begitu.org

Indarkeriaren kontrako martxa morea lehenengoz Arratian

Arratiar guztiak agertu daitezcan indarkeria sexistaren kontra, hamahiru ekitaldi batzean dauzan kartela prestatu dabe Arratiako andra alkarte eta talde feministen sareak eta Arratiako Udalen Mankomunitateak.

EMAKUMEENGANAKO
INDARKERIARI EZ


Sarea, Andraizeak Dimako andra taldeak, Areatzako Emakumeen Foroak, Mazala Zeanuriko andra taldeak eta Noka Igozko talde feministak osotuten dabe. Lemoa, Artea eta Bedian andra talderik ez dagoenez Udalak proposatu dabez ekintzak.

Igozko Udalak bere kabuz prestatutako egitaraua aurkeztu dau. Izan be alde aurretik eukiezan ekintzak prestatuta eta ez dau parte hartu koordinazio bileretan.

Zeberioko Udalak, bariz, adierazpen instituzionala irakurriko dau eta herritarrak "mobilizazioetan parte hartzea" konbidatzen ditu.

Ekintzen artean, nobedade moduan, Arratiako herritarrak Igozkoaren oinez edo bizikletaz martxa morea egingo da, gero Igozko, urteroko konzentrazioa egiteko.

Berbaldien artean, aitatu behar da Marcela Lagarde izango dala Zeanurin hilaren 29an. 5. 8. eta 9. orrialdeak



ARRATIA

Arratian greba ez zan lar ikusi

BEGITUREN edizioa zarratutarakoan datu faltan, zementiaren 14ko greba ez zan lar ikusi Arratian.

Izan be, ELA eta LAB dira sindikatu indartsuenak hemen eta honeek ez eben ez grebara ez mobilizazioetara deitu. Deialdia CCOO, UGT, ESK, CGT eta CNT sindikatuak egin eben, hainbat erakunde eta gizarte eragilez batera.

EH Bilduren barruan dagoan Alternatibak be greban parte hartzea deitu eban eta EH Bilduk mobilizazioetarako deia egin eban.

Greba eta mobilizazioak Europako hainbat herrialdetan be egin ziran CES Europako Sindikatuen Konfederazioak deituta, eta sano arrakastatsua izan zala batez be Portugalen dinoe bertako sindikatuak.

LEMOA

Cementos Lemonako EEE aurrera doa

Lanpostuen defentsan, hilabete eta erdiko kanpaldia, lan-ixteak, konzentrazioak eta greba egin ostean, beste gauza batzuen artean, Portland Valde-rivasek ez deusela barririk emon eta, beraz, Cementos Lemonako EEEa aurrera doala azaldu eban Jabi Amorrrutu LABekoak Lemoan emondako prentsurrean, zementiaren 13an. Beharginak burrukan jarraituten dabe.

ZEBERIO

Euskal Ijitoen Eguna

Euskal Ijitoen Eguna hilaren 16an da eta hori ospatuteko berbaldi bat eta kontzertu batzuk antolatu ditue Zeberion. Sueticalli ijito alkarteak eta Udalak prestatu dabe egitaraua alkarlanean. Hori dala eta, rock flamenkoa entzun ahal izango da Zeberioko plazan Los Fanyts taldearen eskutik. 7. orrialdea

VOGUE | ROXY GUESS POLICE | CEBE Silhouette V&L Ray-Ban

OPTIKA BARRIA IGORREN

ZEMENDIAREN 21 EAN ZABALIK

IREKIERA JAIA
ZEMENDIAREN 23 AN
ARRATSALDEKO
19:00 ETAN

Olaetxe
OPTIKA ZENTRUA

Sabino Arana 3. 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 olaetxeoptika@hotmail.es

KANTU HERRIKOIAK

ANA JUANITA

(Labayru Ikastegiko
Agozko Artxiboa)Neure anaje, ze barri ohi den
Mutriku herri noblian?
Aite zeuri az neu be bizi nez
ez da barri onik handikan.Ezin esanak ete deukaguz
anaje bion artian?
Ana Juanitan ezkontzatxue
publikatu de kalia.Ana Juanita ezin ezkondu
ni bizi nazen artian,
urre karia eta medeila
neuk dodaz idunerian.Sartu ginanean joiari baten
joixuok zegan zirian,
batzuentzako hamazortzien
zeuretzat hamabostian.
Hamabostian gure ezpozuz
zeure gorputzen trukian.Eskerrik asko dama gaztia
Mutriku deuket firmia,
hango firmia ikusi artian
ezin emon nei berbia.Sartu ginanean Mutriku horretan
Mutriku herri noblian,
hogetamairu dama lindatxu
topo ginduzen kalia.Batak adios, besteak agur,
Ana Juanitak baperez.
Ana Juanita, neure laztana
gaur hemen zer pasatu de?Kanpo jentia datorrenian
agur eitia usu de,
agur eitia usu bai bai
neuregan be bajadu de.Bordegaraien semiak
ai ze fortuna bagiak!
Urkamendiko oinian dago
hango laugarren semia.Bordegaraien alabak
ai ze andra fortunosa!
Hamabi urte dituezaneko
garrainoko kopetak.Bordegaraien zaldie
lau kadaretan zurie,
zazpi pausotan pasatuten dau
zortzi arkuko zubie.

Ana Juanita



Iturria: Eduarda Bilbao Etxebarria (Dima 1905-Arantzazu 1988).

1982an, Arantzazun, Karmen Bernaolak jasoa.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 12tik 18ra

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 19tik 25era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 26tik abenduaren 2ra

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7
Tel.: 94 631 73 11

22:00etatik 09:00etara

Goiria. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Carazo. Karmelo Torre kalea 12. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua
22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era
orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara
30 minuturo, azkenengo 22:15ean
Galdakaoraino.Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30
minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean
Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era
30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:
06:45etik 20:45era bi ordurik behin.Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik
behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era
orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,
Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.
Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik
21:15era orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.
Zapatu eta jaiegunetan ez dago
zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta
20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.
Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15
eta 17:45.Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,
14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15
eta 16:45ean.Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,
16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan
dau eta Otxandioakoak 16:00etan.
Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:30ean urtetan dau Bilbotik.
Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau
eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta
16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta
Otxandioakoak 10:30ean.
Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan
dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.
Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan
dau Gasteizetik. Otxandioakorik ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino taldea: Aritz Arrizabalaga, Julen Bilbao, Oihane Barrenetxea,

Urtzi Barrenetxea, Clara Luja Azpiri, Cristina Ruiz eta Irati Urien.

Maketazinoa: Iñigo Iruarrizaga.

Publizidatea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Maria Rodriguez eta Pablo Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Julen Eskalante
eta Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde
Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Alaia Ozerinjaregi eta Iraitz
Sagarna (Igorre) eta Peio Murgoitio (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Ale kopurua 6.600 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

Zeure berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri-gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48.142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Eskuestu



Eskuestua persona eskuzabalaren aurkakoa da. Boltsikora eskua sekula sartzean ez dauana: kuadrilan, esaterako, egundo be errondea ordaintzen ez dauana. Beraz, ez dau lagun asko egingo. Holangoari deituteko hainbat era dagoz Arratian: eskuitxi, urri, kurdo, eskuestu, jantxakur, boltsazimur, ziztrin... Batuaz, zeken edo zikoitz esaten da. Adibidea: Hi, eskuestu hori, gosea baino txarragoa haz!

ERETXIA

Sare batetik bestera

Arratiako andrak sarea sortzeako bidean gabiz eta euskerearen inguruko sareetan ibilia nazan aldetik, horrek emondako esperientzia gurera ekarri gura neuke.

Ekin eta ekin da gure herriaren lema; izan be, gure gizarte mobimentuak ez ziran planifiketatik abiatu, ekintzatik baino -gogoratu, ostean, ikastola eta gaueskolen kasua-; gerora planifiketearen beharizana ikusi bada be, holangoak izan ziran hastapenak.

Eta hastapenak dira gureak be, ze Arratiari jagokonez holan hasi dira herrietako taldeak sortzean: alde batetik, andrak espazio publikoan presentzia izateko eta beste aldetik, alkarlaguntza harremanak sortu, alkarregaz zeozer egin... azken finean sororidatea garatzeko.

2012ko gure gizartean, inguru erasokorrean eta egoera diglosikoan euskeraz bizitea hautu personala dan legez, andron alde egitea be kontrako egoera gogaikarrian egindako hautu personala da. Norbanakoaren hautu hori maila sozialera eroateko sororidatean oinarritutako hartu-emonak hedatu gura doguz, transformazino prozesuak modu kolektiboan ereigiteko.

Horretarako bidean ipinten gaitu hastapenetan dagoan sare horrek ze Arratian be taldeak zein herriak alkarren kontra norgehiagoka ibili daitezke, edo alkarri lagundu eta alkarregaz lan egin. Guk bigarrena aukeratu dogu: alkarlana komuniketako gaitasunean oinarrituta.

Talde bakoetak bere izaerea dauka, kideak eta inguruak emoten deusiena, eta bakoetak badaki zertan datzan bere jakintza eta balioa. Jakina, hobeto hortik abiatu eta horretara dediketea. Barandiaranen lema izan zan



MAITE ARTABE
Areatzako Emakumeen Foroko kidea

dogu. Eta hori hutsune handia da ekintzan ohituta dagoan gizarte baten: zeozer egin gura dogu, baina zer?

Sareak balio dau ikusi eta jakiteko beste batzuk zer egin dabean be eta holan eurakandik ikasi, geurera ekarri eta geuk be ekintzak aurrera eroateko.

Kondenauta gagoz sorkuntzalanera. Baina kondenez gainera bedeinkapena be bada. Sortzean gagozanez, dana da posible; baina sormen-lana ez da bat be erreza eta holan alkarren apoio, ikasle-irakasle eta akuilu gara.

Eraldaketa prozesu bat eroan gura dogu aurrera, beti be gure arteko paternalismo eta karidade barik, bai ostera, alkarregaz eta alkarrenganako errespetoagaz. Zentzu horretan hauxe eskatuko neuskie Arratiako partidu politiko, instituzino, alkarre, eta abarrai: paternalismo eta karidade barik, oportunistoa alde batera itxita, errespetoan oinarritutako alkartasun eta laguntza emoteko andra sare honeri.

Jon Sarasuak euskerearen inguruan egindako poema bat parafraseau gura neuke hemen gure lana ondo adierazo leike-lakoan:

*Nik ez dakit
Euskal Herri parekidea
lortuko dugun azkenean,
baina neure burutik hasita
espazioak emakumez betetzen
saizten naiz.*

*Edozein kasutan ere,
hori da egin dezakedana,
egin nahi dudana,
eta niretzat zentzua duena.*

*Nik ez dakit
Euskal Herri euskalduna
lortuko dugun azkenean,
baina neure burutik hasita
espazioak euskeraz betetzen
saizten naiz.*

*Edozein kasutan ere,
hori da egin dezakedana,
egin nahi dudana,
eta niretzat zentzua duena.*

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea Iuzua, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

*Beharrea beharrez,
euskeraz eginez*

Euskeraz
Batzen gaitu

LUMATUTEN



IDOIA LEGARRETA

Bildurrak,
bildur

Astlehena da, nekatuta nago, oso nekatuta. Lanegun amaigabe baten ondoren, bilera eternal bat izan dot. Eta Kultur Etxetik berandu noa etxera, gurako nebana baino beranduago. Heldu, zapatilak kendu, pijamea jantzi eta afaldu barik ohera sartuko naz, lotara. Ze ondo... Hara! ez naz bakarra ordu honeetan kaletik dabilena, beste azeratik doan tipo horrek be, ez dauka oso arpegi ona...

Buff, zelako hotza egiten dauan, ohera sartu baino lehen kolakautxo bat akaso bai... Ai zer da hori? Pausuak entzun dodaz. Norbait dator nire atzetik ala? Ba ez. Ez dator inor. Tuntun, tuntun, tuntun. Bihotza galapan jarri jata; agotik ziztu bizian urten behar jatan zaldi zoroa da. Lasaitu, aber, zure irudimena dala. Tuntun, tuntun, tuntun. Bihotz taupadak amase-agaz nahasten jataz eta bihotz

taupadak pausuakaz. Tuntun, tuntun, tuntun. Portaleko atea zabalik dago. Hasi galapan, atera heldu behar zara. Benga, benga!

Etxeko atarian nago, sarrerako atea nire bizkarrean zarratu barri. Izerdi tantakadak bekokitik behera jausten jataz, malako forman. Amasestuka nabil. Korrika baten etorri naz zubitik hona! Pausuak benetan entzun dodaz? Norbait etorri da nire ostetik? Ala nire irudimena izan da?

Bildurra huntza lez zabaldu jata gorputz barru-barrutik, burua endredauz eta gorputz osoa paralizauz. Bildurrak isiltasunean, ez dagoana ikusiarazoten deusta. Bildurrak sentidu arazoten nau txiki eta hauskor, egiten nau ahul.

Izan be, bildurretan hezten gaitue. Denpora guztian, nondik, noz eta zelan ezin dogun joan esaten deuskue. Ahulagoak ei garalako, hauskorragoak. Erasotuak izan ezker, akabo. Eta hori dana sentiduarazo eta sinistu arazoteaz arduratzen diran hamaika ipuin, mandato sozial eta zurrumuru daukaguz gurean. Izan be, gizarte eredu patriarkalari komenidu jako gu kontrolauta izatea, askeak ez izatea. Eta halanda be, ausartak, indartsuak gara. Bagaralako. Sinistu daigun.

ZERTZEAN

Denboraren altzoan

LARREGI TALDEA

Nire bidearen amaiera gertu dela udaberria lorerik gabe dator jada Iraganean katigatuta dut oroimena bakarrizketan, inor ez dago nire alboan

Denboraren altzoan lokartuta hauskorak dira orain oroitzapenak Non zaude? Nora joan zara?

Zimur txarrenak ikusteko zailenak dira bakardadeak marrazten ditu bihotzean

Inoiz bazatoz nire eskua heldu gogor, nor izan nintzen, zer izan ginen oroitzeko

Denboraren altzoan lokartuta hauskorak dira orain oroitzapenak Non zaude? Nora joan zara?

Atzera bueltarik gabeko egoera honetan Itxaropenik ba ote? Zu gabe, zeozer ote? Laztan arrotzen artean, agortuz doaz nire egunak pixkanaka-pixkanaka banoa bakardadean

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Udagoieneko koloreen artean gorria da nagusi.

Gorria: *izond.* eta *iz.* A. *izond.* Odolaren, mitxoletaren kolorekoa, ostadarraren lehen zerrendako kolorekoa. *Ardo gorri nafarra. Goiz gorriak dakarke euri, arrats gorriak eguraldi (esaera). Lotsaren lotsaz gorri gorri eginda.*

Ezkertiarra, iritzi aurrerakoiak dituena. *J. B. Elizanburu gorria zen, hots, errepublikazalea; Duvoisin, aldiz, zuria, erregetiarra.*

(Izen gisa). *Espainiako gorriek elizak erre zituztela.*

Adkor. Guztiz larria edo handia. *Horien behar gorrian gaude. Negu gorrian. Gorriak ikusi, igaro.*

Soila, biluzia. *Kale gorrian aurkitu dituzten umeak. Larru gorri(t)-an:* biluzik.

B. iz. Kolore gorria. *Soineko gorri iluna. Hire ezpainetan basoetako marrubiaren gorria.*

(Entziklopedia laburra)

Udagoien gorria aurtengoa, negu gorriaren atari. Jentea kale gorrian, miseria gorrian, gorriak ikusten, narru gorritan. Jentea be gorria? Odola, sua, mallukia, ustrukuaren lehen zerrendako kolorea...



 Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.147 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosti.cl.com

 **agoa** Ortodontzia
Inplanteak
Estetika
hagin klinika

Marina Urigoitia Aiderkoa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igone-Bizkaia
T. 94 631 30 39

Marina Urigoitia Aiderkoa 110
R.P.S. 25/06

 **JANDONIZ**
nagusientzako etxea
residencia para mayores

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia - tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARRATIA

Martxa morea herrietatik Igorrera andrakanako indarkeriaren kontra

Erredakzioa

Zehazkiaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean, arratiarrak morez jantzita joango dira oinez zein bizikletaz Igorrera, bertan kontzentrazioa egiteko. Igorreko hau jentzerik gehien batuko dauan ekintza izatea espero dabe antolatzaileak, baina hamabost egun hartuko dituan egitarau oparora antolatu dabe aurten Arratiako andra alkatetza, talde feministak eta erakundeak.

Zemendiak 15, eguena,

19:00etan, "Andren kontrako biolentzia ekonomikoa" berbaldua, Areatzak Udal Aretan. Hizlaria: Idoia Ruiz. Areatzak Emakumeen Foroa.

Zemendiak 22, eguena,

08:00etan, Eraldatzen: Gazteak indarkeria sexista prebeniduteko I. tailerra.

10:00etan: *Egunon printzesa* film laburra. Zeanurin, Zulaibar Lanbide Ikastegian. Urtxintxa Eskola.

19:30ean, "Tratu txarrak edo genero indarkeria" hitzaldia, Lemoan, Jubiladuen Etxe gaineko aretoan, Hizlaria: Miriam Herbon. Sortzen Consultoria.

Zemendiak 23, barikua,

18:00etan, Beldur Barik lehiaketako sari banaketeta, Areatzak Udal

Aretan. Ostein, kopautxo.

20:30ean, "Indarkeria sexistari aurre egiteko tresnak" berbaldua. Dima, Liburutegian. Hizlaria: Miren Urresti. AUM Berdintasun Zerbitzua.

22:00etan, afaria Indusiko txokoa. Apuntetako: andraizea@gmail.com.

Zemendiak 24, zapatua,

17:30ean, zine-foruma Arteko Kultur Etxean. *Agua* pelikulea.

Zemendiak 25, domekea

Martxa Morea Igorrera. Oinez zein bizikletaz. Areatza: 11:30ean parketik. Lemoa: 11:30ean udaletxeko plazatik. Dima: 12:00etan udaletxeko plazatik.

13:00etan, kontzentrazioa, Igorreko Kultur Etxean.

18:00etan, Ipuin kontalaria "Ni neu, zu zeu". Apika taldea. Lemoan, Kultur Etxean.

Zemendiak 28, eguaztena

08:00etan, Eraldatzen: Gazteak indarkeria sexista prebeniduteko II. tailerra, Zeanuriko Zulaibar Lanbide Ikastegian. Urtxintxa Eskola.

Zemendiak 29, eguena

19:00etan Marcela Lagarderen berbaldua, Zeanuriko Kultur Etxean.

Zemendiak 30, barikua

19:00etan, "Andren aurkako indarkeriari aurre egiten" berbaldua. Bediako Liburutegian. Murgibe.

IGORRE

Egitaraua prestatu dau Udalak zehazkiaren 25a dala eta

Erredakzioa

Igorreko Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguneko ekitaldiak ez dagoz Arratiako beste herrietako ekintzak jasoten dituan kartel bateratuan. "Teknikaria Arratia mailan zemendiak 25erako ekin-tzen koordinazioa hasi orduko, guk geure plangintza eginda eta publikaut (Kultur Etxeko programazio liburuxkan) geneukan. Horregaitik ez jaku egoki iruditzen geure lana mankomunitateak sinatutako koordinazio kartelan agertzea, ez dogu parte hartu koordinazio batzar horrean eta", azaldu deutso BEGITURI Soraya Lizundia Igorreko zinegotziak. Honek dira Igorreko Udalak antolatutako ekintzak.

Zemendiak 19,

19:00etan, andrakanako indarkeriaren kontrako adierazpen instituzionala irakuriko da ohiko plenoan.

Zemendiak 25,

13:00etan, kontzentrazioa Kultur Etxe parean.

Zemendiak 30,

20:00etan, Udalak Sortzen-en eskutik egindako, genero bardingtasuna sustatzeko kirolean diagnostikoaren emaitzak. Lasarte Aretan.

Abenduak 1,

20:00etan, Hika antzerki taldearen eskutik *Hitzak* antzezlana. Kultur Etxean.

ZEANURI

Pastuak osasun txartela eukiko dabe

Erredakzioa

Hogei-hogeiabost abeltzain, baserritar eta larre jaube inguru batu ziran Zeanuriko Kultur Etxean pastuen kalidadea hobetuteko asmoz zehazkiaren 3an. Helburu honegat, Neikerrek Agroekosistemaren Osasun Txartelak (AOT) aurkeztu zituan eta aurkezpenaren ostean, Arimegortara joan ziran abeltzainak praktikak egitera.

Neiker-ekoan eretxian, larre ekosistemak hainbat mehatxu ditue gestioari jagokonean eta beste gauza batzuen artean, abeltzaintza itxteak kalteak eragin daitez larreetan. Ekosistema honek eskeintzen dabezan zerbitzuak eusteko, ezinbestekoa da lurzorua kalidadea eta biodiversitatea. Gorbeiaiko larreak konserbetako Soilmontana proiektuak konserbazio lanak zehazten ditu.

Agroekosistemaren Osasun Txartelak

Larreen kalidadean eragiteko erreminta bat da Agroekosistemaren Osasun Txartela. AOTak eskuliburu batzuk dira, larreen ekosistemearen osasun egoeraren ebaluazioa zelan egin azaltzen dabenak. Gainera, eragindako edozein aldaketak, esaterako, egindako edozein praktikak, osasun horretan izan daiteke eragina baloretan ahalbidetzen dabe.



Iker Mijangos Neiker-eko arduraduna.

Osasun diagnostikoa egiteko adierazle batzuk neurtzen dira. Oinarriko adierazleak bazka produktzioa, biodiversitatearen konserbazioa, lur baliabidearen konserbazioa eta klima aldaketaren kontrako burrukea dira.

Ebaluazioak emaitza txarrak emon ezker, zelan hobetu be proposatzen dabe AOTak.

Soilmontana proiektua, Gorbeiaiko larreak jagoten

Europako Life programea, biodiversitatea konserbetako dirulaguntzak emoteko sortu zan. Honen barruan dago Soilmontana proiektua eta Gorbeia

inguruetako mendietako eta haran barreneko larreen konserbazioan oinarritzen da. Orozko eta Zeanuriko udalerrietan dagozan larreak hartu dabez aztergai Neiker-ekoak. Izan be, proiektuaren zuzendaritza eta erantzukizuna Neiker-ek dauka eta Iker Mijangos da honen arduraduna. Abeltzain alkatetza be parte hartzen dabe proiektuan: Lorra kooperatibea, Orozko eta Zeanuriko abeltzainen alkatetza, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak.

Hiru urteko iraupena dauka proiektuak. 2011ko urrietan hasi zan eta 2014an amaituko da.

IGORRE

Ekarpenak egiten dabiz herritarrek urigintzan genero ikuspegia sartzeako

Hiri Debekatuaren Mapa egiteko, hau da, andren eta oinez dabizen beste herritarren eguneroko bizimoduan arazo edo deserosotasunak detektetako tailerrak egin ditue Igorren eta tailer honeetan sortutako mapak Kultur Etxean egon dira ikusgai.

Erredakzioa

Erakusketan, publikoak bere ekarpenak egiteko aukerea izan dau.

Tailerrok Hiri Kolektiboaren arkitektoen gidaritzapean egin dira eta informazio osoa bildutakoan teknikari honek proposamenak egingo deutes Udalari urigintza hobetu ahal izateko. Lan honen aurkezpena Saioa Zuazua eta Ane Alonsok, Hiri Kolektibokoak, egin eben.

Lau mapa ikusi eitekezan erakusketan, bakotzak arlo bat landuten dauana: Espazio publikoa, Mugikortasuna, Eguneroko bizitzarako ekipamenduak eta Segurtasun(ez)a.

Han, hobetu beharreko gauzak, baina baita be ondo dagozanak jasoten dira, hau da, igorretarrak ondoen baloretan dituen guneak zein arazoak sortuten dabezanak. Lan honerik esker Igorreko errealidadetik abiatuta egingo dira hobetuteko propo-

samenak.



Igorreko planoak.

IGORRE

Timoteo Atutxari omenaldia egin deutso Udalak

Erredakzioa

Timoteo Atutxa igorreztarra erail ebeneetik 75. urteurrenean aitortza ekitaldia antolatu eban Igorreko Udalak urri bigarrenaren 28an Goiko Plazan. Ekitaldiaren amaieran plaka bat agi-

ritu eben Timoteoren familiakoak, "berari eta askatasunaren alde bizia galdu eben danen omenez".

Timoteo Atutxa Petralanda Eusko Alderdi Jeltzaleko eta Arratiako Uri Buru Batzarreko agintaria izan zan. 1937ko abuztuaren 5ean Larina-

gako kartzelara eroan eben eta han erail eta hilobiratu eben.



Igorreko omenaldia.

DIMA

Barriro be ipiniko dabe martxan liburutegia

Urteetan itxita egon ondoren abenduak 23an barriro martxan ipiniko dabe Dimako liburutegia.



Dimako liburutegia.

IGORRE

Oinezkoentzako pasabiderako diru laguntzak bilatuko ditu Udalak

Erredakzioa

Garakoiko auzokoak sufriduten dabezan uriolak ekiditeko ekin-tzen artean, auzunerako sarbidea zan zubia bota behar izan da, tapoia egiten ebalako. Auzunean sartuteko zubi barri bat egin dabe biribilgunearen ondoan, eta, Udalaren arabera, beste zubia ez da bota "obra amaitu dogun arte, oinezkoai bazterbidetik zubiaren espaloirako bidea errezteko".

Auzokoak protesta egin eben zubia bota zan egunean, kamino bazterretik eta espalo barik egin behar dituelako zati batzuk autobus geralekura joateko. "Biribilguneetik zubi barriraino 800 metro dagoz gitxi gorabehera eta erdia inguru kamino jeneraletik egin behar dira. Hau sano arriskutsua da" azaldu deutso BEGITURI Joxe Mari Larrabide Garakoi auzokoak.

Auzokoak eskatuten daben pasabidearen aurrekontua 300.000 eurokoa litzateke eta Udalak, "erakunde batzuetako diru laguntzak aztertzen" jarraituko dauala emon dau jakitera.



Ebay-ko inguruak urez gainezka.

Auzokoak, barriz, pasabidea lortutea kosta egingo dala baina "ez dabela etsiko" dinoe.

Uriolak ekiditeko lanak

Uriolak ekiditeko Garakoiko zubia bota eta barria egiteaz gainera, Udalak beste lan hau egin dau: Urkizuko preseaa jeitsi 1,30 m. gitxi gorabehera. Modu berean, Ebay fabrika bota eta meandroa eraldatuko dabe.

Erredakzioa

Kultur Batzordetik sortu zan liburutegia barriz zabaltzeko proposamena. Lokala eta nahikoa liburu baegoazan be, Udalaren egoera ekonomikoa dala eta, auzolanaren ohitura berreskuratzea eta zerbitzua barriz eskeintzea ebatzi dau herritar talde batek.

Behar handia egin behar izan da liburutegia egokitzeko. Lokalean garbiketa lanak eta konponketak egin dira, baina horrezaz gain bilduma berrantolatatu eta eguneratu behar izan da.

Udalak auzolanean egiten dabizan lan hau babestu dau hasikeratik, konponketa lanen

ardura izan dau eta materiala ipini dau. Herritarrak margoketa lanetan lagundu dabe, baita eskolako haur hezkuntzako umeak be. Azken honeek euren eskuen hatz markak itxi dabez hormetan etorkizunerako.

Proiektuaren arduradunak arrastietan zabalik eukiteko bolondres bila dabiz eta abendura arte izena emoteko aukerea dago udaletxean. Helburua liburutegia ahalik eta arrasti gehinetan zabalik mantentidu eta Dimako biztanleak zerbitzu hau jaso ahal izatea da.

Inaugurazioa abenduaren 23an izango da eta hau ospatzeko hainbat ekintza antolatuko dabez, liburu azoka besteak beste.

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Umeen moda 0-20 urte
• Boboli • Ray • Aranda
• AKR • Guesler • Arandiga
• Gaudelo • Lela • Hassana
sein
LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296
seinmoda@hotmail.com

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK
Garbi, 29 Telefonak: 94 673 60 14 IGORRE BIZKAIA

ARRATIA AUTOESKOLA
Kamela eskolarez zein erdoras
Agne Lehendakaria 11 48140 Igone (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 56 31 Faxa 94 673 70 83
E-posta: unabuz@euskadinet.net

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igone
94 631 52 26

Los Chopos
neurriera egindako armairuak
Anda, Los Chopos, 35 (Niguel) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimonak: A1, A, B75, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@euskadinet.net

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoa
Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

*** KIRRU * ILEAPANDEGIA SOLARIUM**
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 00

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
E. Agirre, 7
48140 Igone (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 78

INCOESA
Tel. 94 631 32 75
Faxa. 94 631 37 66
Bidekoetxe 18 48.390 Bedia

www.begitu.org

BEDIA

Udalak 800.000 euroko inbersinoa egin dau auzoak hobetuteko

Erredakzioa

Herriko auzo batzuetako urigintza hobetuteko 800.000 euro inguruko inbersinoa egin daua Udalak.

Udal iturrien arabera, argiztapena eta erremate batzuen faltan, Barroetako zubia eta Mendisurreko bidea egokitzeko lanak amaituta dagoz eta 131.000 euroko inbersinoa egin da. Eroso-Ugarte eta Barroeta auzoak oinezkoentzat lotzeako proiektua, 271.000 euro, eta argiztapen publikoko sistemaren eraginkortasun energetikoa LED argiztapenaren bitartez hobetzea proiektua, 136.000 euro, fase aurreratuan dagoz.

Astizteko Urigintza Planaren bosgarren fasea, 114.000 euroko gastuagaz, eta auzo horretako behetako aldea drainatzea be inbersio planaren barruan dagoz.

Eroso-Ugarteko hiru obratan homidura sarea barritzatzea eta



Obra bat.

Murtatza auzoko saneamentu sarearen tarte bat barritzea be marxtan dagoz.

Aitor Sorriketa Bediako alkatearen arabera, Udalak % 20 murritu dau hasieran aurreikusita egoan aurrekontua.

ARRATIA

Deustuko unibersidadea gazteen bardintasun perzeptzioa ikertzen dago

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundia eta Deustuko Unibersitatearen Bizkaialab Gazteria eta Bardintasuna proiektuan, Arratia eta Ezkerraldeko gazteak hartzean dabe parte. 15 eta 29 urte bitarteko gazteak zuzenduta dago proiektu hau eta gazteak andra eta gizonen arteko bardintasunaren inguruan daukien perzeptzioa ezagutzea dauka helburu, gero beharrezkoak diran ekimenak planteetako edo marxtan ipinteko.

Mankomunidadean dagozan 9 herrietako gazteak dago zuzenduta igaz Bizkaia mailan egin zan ikerketea. "Igazkoari jarraipena emoteko, aurten herri mailan egin ebatzi zan, eta Arratian, gai honen inguruan mankomunidadeak agertutako interesagaitik planteau da" azaldu deutso BEGURI Saioa Martin Deustuko unibersidadeko Gizarte Berrikuntza Saileko ikerzaileak.

Ondorioak urte amaieran
Ikerketa honen parte praktikoa



Gazteak.

ZEBERIO

Flamenkoa egongo da Ijitoen Eguna ospatuteko

Euskal Ijitoen Eguna zehazkiaren 16an ospatzen da eta Zeberion egun horretarako berbaldi bat eta kontzertuak antolatu ditue.

Erredakzioa

Oscar Vizarragak, Kale Dor Kayiko alkatekoak, ijitoen historiaren barri emongo dau "Atera ziran lekuetik Euskal Herrira heldu arte XIV. mendean" izeneko berbaldian. Hau Zeberioko udaletxean izango da arrastiko zazpiretan.

Kontzertuak, barriz, hamar t'erdietan hasiko dira. Bertan, estilo desbardinetako talde bik joko dabe: Los Fany's taldea rock flamenkoa egiten dauanak, eta Punto Muer-

to rock talde arratiarrak. Zeberioko plazaren aterpean eta plazaren ermitan izango dira kontzertuak, hurrengorik hurrengo.

Udala eta ijitoak alkarlanean

Ospakizuna alkarlanean prestatu dabe Udalak eta ijitoak. "Herrian ijito familia bat dago eta eurek alkarlanean prestatu dogu egitaraua" azaldu deutso BEGURI Nahikari Añibarro kultura zinegotziak.

Zeberioko ijito honek Sueticalli izeneko alkartea be sortu dabe.



LEMOA

KPIren igoerea aplikauko deutse zerga eta tasa gehienai Udalak

Erredakzioa

Datorren urtean, % 3 gitxi gorabehera igoko dira Lemoan zerga gehienak, baina ez danak. Jarduera Ekonomikoko Zerga, adibidez, ez da igoko eta irisgarritasuna bermatzeko egiten diran lanetako zerga salbuespenak mantenduko dira. Ibilgailuen gaineko zergak igo egingo dira eta ibilgailu potententak % 10 gehiago pagau beharko deutse Udalarri.

Ibilgailuen kasuan, batzuk KPI-

ren igoerea izango dabe, baina zenbat eta ibilgailu potenteagoa, orduan eta igoera handiagoa. "Igoera progresiboa da eta gehien konsumiduten eta kontaminatzen daben ibilgailuak zigortzen doguz" dino Aitor Erauzkin zinegotziak. Dana dala, autobus eta kamioiak KPIaren igoerea aplikauko jakie.

KPIaren igoerea izango dabe, Ondasun Higiezinaren gaineko zergak, eta dokumentuak egiteak, beste batzuen artean.



BEDIA

Udalak ez ditu tasa gehienak igoko 2013an

Erredakzioa

Motordun ibilgailuen tasa izan ezik, beste guztiak ez igotea ebatzi eban Bediako Udalak osoko bilkuran. "Herriko jente askok krisi honen ondorioak sufriduten dituala ikusita hartu zan ebatzi hori Udalak ahal dauan neurrian, egoera hau arintzeko" dino Udaletik. Baina dirua beharrezkoa danez zerbitzuak mantenduteko ibilgailuen gaineko zerga igoko da % 3,4.

ZEANURI

Jaiak Asterrian

Irati Urien

Urtero lez, badatoz aurten be Asterriako sanandresak. Zeanuriko auzo honetan hiru egunetan zehar igarriko da jai giroa. Zehazkiaren 30a dan San Andres egunean, 18:30ean, jaien hasiera ofiziala egingo da, txistulari eta trikitilariakaz. 19:00etan, mezea egongo da auzoko ermitan eta ostean, txokolate jana egongo da hurreratuten dirantzat. Abenduaren 1a, zapatua, egunik fuertena da. 19:00etan, herri kirolen desafioa ikusi ahal izango da: aizkorea, trontzea eta ardi moztea. Gero, idi probak: idi pareta astoaren kontra. 20:00etan, euskal erromeria; 20:30ean, odoloste jana auzotar zein hurreratuten diran guztientzat eta 21:30ean barriro be jantza eta erromeria giroa. Abenduaren 2an, domekea, amaituko dira Ander Deunaren jaiak. 11:30ean mezea egongo da San Andres ermitan. Ondoren, Ezoziko Ama Abesbatza joango da Sorluzetik. Arrastiko 18:00etan, jaien amaierara.

ARRATIA

Konsumo taldea eratzeko deia

Erredakzioa

Konsumo talde bat sortzeko deia egin dau Arratiako ekoizle eta kontsumitzaile talde batek. Horretarako batzar bat antolatu da Igoerako Kultur Etxean hilaren 16an, barikua, 19:00etan. Antolatzaileak deia zabaldu deutse heritar guztiak, parte hartzeako aukera aprobetxau dagien.

MIREN URRESTI

"Arratian bardintasuna lortzeako konpromiso handia dago"

Zemendiaren 25a, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazinoarteko Eguna da. Igaztik hona, indarkeria horri aurre egiteko ahalegina nabarmen handitu da Arratian, eta horri kontra egiteko borondate politikoa egon badagoala esan lei. Izan be, mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuak bardintasun teknikari bat kontratau dau, indarkeriaren biktimai lagunduteko protokoloa onartu da eta gazteak bardintasunean hezteko hainbat ekimen ipini dira martxan.

Egiturazko biolentzia hau dala eta, Arratiako egoera jakiteko Miren Urresti Arratiako Udalen Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzuko teknikariagaz egon da BEGITU.



Miren Urresti.

Erredakzioa

Hasteko, zeintzuk dira Arratiako datuak andren kontrako biolentziari jagokoean?

Aurten, 2012an, andren aurkako indarkeria dala eta, 8 andra ar-

tatu doguz mankomunidadeko Gizarte Zerbitzuetan. Hala, Protokoloa martxan izateak erretzu egiten dau erakundeen arteko koordinazioa, bai Ertzaintza eta Osakidetzagaz, bai baliabide espezializatuakaz, Bizkaiko Foru Aldundiagaz eta Jaurlaritzako

Genero Indarkeriaren Biktimai-Laguntzeko Zuzendaritzeagaz. Baina datuok arazoaren zati txikia dira, iceberg-aren punta. Badogu, beraz, zeregina andrakanako indarkeria desbardintasunaren ondorioa dala azpimarratzeko eta, arreteagaz batera, sensibilizazi-

Instalazio industrialak · Mantenimendu industrialak · Tresneria eta kontrola Merkataritza estalabezimenduen instalazioak · Etxebizitzaren erreformak edo berrikuntzak · Antena instalazioak
Mantenimendua · TDT · Telekomunikazioak · Herriko argiak · Potentziadun koadroak



Arratian kultura bultzatzen

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola industria gunea, pab. E-3/4 · 48.142 Artea (Bizkaia)
Tel.: 94 655 47 19 · Fax-a: 94 404 06 70 · E-posta: indarsl@indarsl.es

noa eta prebenzioa be landuteko, indarkeriari aurre eginez, hiru zutabeon premia dagoalako.

Urteak dira Arratiako andra taldeak egitarau bateratua egiten saiatzen dirala. Oztopoak izan ditue, herritik urtetea eta ondoko herrira joatea gatxa egiten jakie askori. Uste dot, horretan zu koordinatzaile izateak lagunduko dauka. Zelan ikusten dozu zuk? Zure ekimena izan da? Izan be, hemen bardintasun teknikaria mankomunidadekoa da, Arratia mailakoa, beraz.

Arratiako 9 udalak konpromiso sendoa daukie bardintasunagaz, eta horren adibide da mankomunidadean Bardintasun Zerbitzua izatea, Mankomunidadea udalen ebaztiak bideratzeko tresna dalako. Hala, aurtengo udan, zerbitzua aurkezten ibili naz udaletako ordezkariak eta andra alkartek, bardintasun politiken ardatza dalako andra alkartekaz eta talde feministakaz behar egitea, bakotzak bere eremutik, bakotxa bere eginkizunetan, baina, alkarlanean, ezinbestekoa dalako andren eta gizonen arteko bardintasunerako. Orduan izan neban egitarau bateratuaren barri, eta komentau geuntsenean alkartekai zer iruditzen jakien mankomunidadeak be parte hartzea batzarretan laguntza emon eta ekintzak koordinetako, ondo eretxi eutsien. Eta holaxe hasi gara beharrean, alkatere eta udalakaz batera, egindakoa errespetau eta aitortuz eta gure laguntza eskeiniz.

Beraz, herrietako andra taldeak eta instituzinoak batera doaz. Hori be, ez da bape be erraza gurean. Indarrak banandu egiten dira gehienetan: alde batetik herri ekimena eta bestetik erakundeak. Baina badagoz agenda feministan egun batzuk ia danak batzea lortzean dabenak. Zein puntutarainoko alkarla-

na dago gurean andra talde eta erakundeen artean? Zelan baloretan dozu hau?

Mankomunidadeko bardintasun zerbitzua barria da, eta martxan jarri da mankomunidadea osatzen daben udalak, alkarlanean, bardintasunaren aldeko apustua gauzatzeko. Modu berean, andra taldeakaz hasi dogun alkarlana be barria da. Orain arte izandako esperientzia benetan baikorra izan da, eta, asmoa, astiro-astiro, alkarlanagaz jarraitzea da. Goian aitatu dodan lez, ezinbestekoa da erakundeen eta taldeen arteko alkarlana, danon ekarpena behar dalako desbardintasun egoerari bueltea emoteko.

Egin mesedez, Arratia mailako eta herrietako Bardintasun Politiken eta Planen balorazio orokor bat.

Arratian, 9 herritatik, 6k bardintasun plana daukie eta 2k datorren urterako izango dabe. Horreok datuok azpimarratzekoak dira benetan, azken finean, planok

Aurten, andren aurkako indarkeria dala eta, 8 andra artatu dabez mankomunidadeko Gizarte Zerbitzuetan

Arratiako Udalen

Mankomunitatea

prestetan dabil

Bardintasun Plana.

Alkartekaz behar egitea

planaren ardatzetariko

bat izango da

bardintasunagaz daben konpromisoa erakusteko tresnak dira, eta, beraz, esateko moduan gagoz Arratian konpromiso handia dagoala. Bestalde, herri bakotzak bere ibilbidea dauka, batzuk luzeagoa, besteak laburragoa, baina danak daukie berezitasun positiboak. Mankomunidadeko Bardintasun Plana prestetako orduan, kontuan doguz herrietako plan guztiak, ekintza batzuk herrian bertan egitekoak badira be, beste asko eta asko plan guztietan datoz eta mankomunidadeetik bideratu leitekez, bateratuak dira eta, esaterako, prestakuntza, eta genero ikuspegia udaletako alor guztietan sartzea.

Herri batzuetako ekimenak, Igorreko Hiri Debekatua-ren mapa, Areatza andren memoria berreskuratzeko egiten dabilen beharra, eta abar; beste herrietara zabalzerik badago?

Zalantza barik, ekimen interesgarriak dira, lan handia eskatzen dabenak eta bardintasunagaz daukien konpromisoa erakusten

dabenak. Holako ekimenak erdugarri izan leitekez gainerako herrientzat, bardintasunaren inguruan zer egin leiteken eta zelan egin leiteken gauzatzen dabelako.

Beldur Barik lehiaketea dala eta, igaz Arratian hiruzpalau lan aurkeztu ziran. Aurten, bultzatzeko edo, mankomunidadeak sari bat emongo deutso Arratiako lanik onenari Emakunde emoten dauanaz aparte. Azaldu apur bat hori.

Komentau dogun lez, andranako indarkeria desbardintasunaren ondorio zuzena da. Batzuetan, larregi lotzean da indarkeria fisikoagaz, eta ostenduta gelditzen dira gainerako indarkeria guztiak, psikologikoa, ekonomikoa, eta abar. Gainera, gazteen artean, pentsetan da indarkeria emakume nagusiak bizi dabela, eurek ez dabela holakorik bizi, eta horixe berori da Beldur Barik programak landu gura dauana, gazteak andren aurkako indarkeria bistaratzea, egunero-egunero

bizi daben diskriminazioez jabetu eta aurre egitea, errespetuan oinarritutako harremanak izateko. Beraz, mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuan pentsau genduan egokia zala Beldur Barik lehiaketa globala Arratia-ra ekartea, lehiaketaren bidez, gazteak indarkeria sexistearen prebenzioa landuteko.

Zeintzuk dira erronkarik handienak Arratiako gazteai jagokienean?

Mankomunidadeak urteak daroaz bere eskumenen barruan, gazteakaz behar egiten Gizarte Zerbitzuetatik. Horrezaz gainera, aurten proiektu gehiago jarri ditu martxan gazteai eta bardintasunari lotutakoak: goian aitaturako Beldur Barik lehiaketea, Bizkailab programea, Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera, Arratiako gazteak zelan perzibiduten daben bardintasuna eza-gutzeko, eta martxan jarri dau, baita, Arratiagaztedi proiektua, Bizkaiko Foru Aldundiaren Udako Gaztedi programearen barruan, Arratiako gazteen parte-hartzea sustatu eta eretxiak, kezka eta proposamenak jasoteko. Beraz, erronkarik handiena gazteon preminai erantzun eraginkorrek emotea da, eta, horretarako, lehen pausua euren eretxiak eta perzepzioak ezagutzea. Izan be, horreen ekimenon helburua horixe da.

Zemendiaren 25aren inguruko ekitaldien artean baten bat azpimarratu gura dozu?

Ekitaldi guztiak dira garrantzitsuak, baina azpimarratu gura dogu egitaraua antolatzeko egindako beharra, sare beharra, emakume alkatere, talde feministen eta erakundeen artekoa. Arratiako Udalen Mankomunitatea prestetan dabil Bardintasun Plana eta alkartekaz behar egitea eta alkarlana sustatzea planaren ardatzetariko bat izango da, ez bakarrik zemendiaren 25a edo martiaren 8a antolatzeko orduan, urte guztian baino.

AIZKOREA

Aitzol Atutxak Aizkolari Kopa 2012 irabazi dau

Erredakzioa

Aitzol Autxa dimoztarrak 2012ko Urrezko Aizkolarien txapela lortu eban, urri bigarrenaren 20an Bilboko La Esperanza frontoian jokatutako Aizkolari Koparen finalean. Atutxa II, Bizkaiko txapelduna da.

Bilboko finalean dimoztarrak 16 minutu eta 29 segundo behar izan zituan 6 modutako 10 ebagite egiteko. Bigarrenak, Etxari Aranazko Floren Nazabalek, 17m 04 segundo behar izan zituan beharra amaituteko.

Euskal Herriko txapela jokoan

Dimoztarrak Euskal Herriko Txapelketako finala jokatuko dau hilaren 18an Arbizon (Nafarroa). Final honetarako urri bigarrenaren 28an jokatutako sailkapenean, Nazabal nagusitu jakon Atutxari eta honek bigarren egin eban. Lehia gogorra espero da, beraz, finalean Nazabal eta Atutxa Ilaren artean. Honekaz batera, Joseba Otaegi, Iñaki Azurmendi, Unai Otaño eta Josemari Olasagasti sailkatu ziran.

PELOTEA

Teknifikazio zentrua eta pelota eskolea Bedian

Erredakzioa

Bizkaia Harrobi 2020 kirol teknifikazio proiektuan hartuko dau parte Bediak. Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntzak abiatu dau proiektu hau eta honerik esker proiektu handiena daukien Bizkaiko pelotariak euren eraginkortasuna hobetuteko prozedimendu barriak izango dabez eskura. Bediakoan, erreminta (pala, zesta, eta abar) landuko da.

Bedian Arratiako pelotari federatuentzako entrenamendu teknikoak egingo dira, ezker pareteko frontoian. Entrenamenduak astelehen eta eguazten arrastietan izango dira, Imanol Ibañez Bilboko pala jokariaren eskutik. Gainera, Federazioak pelota eskola bat ipiniko dau Bedian umeak ikasi daien pelotan. Hilaren 30era arte emon daikie izena 7 urte baino gehiagoko umeak liburutegian.

MENDIA

Ganzabal Mendi Taldeko bazkideen txandea

Erredakzioa

Mendi Amesgarriak proiektu zikloaren ostean, beste lau proiektu erakutsiko ditu Ganzabal Mendi Taldeak. Oraingoan, taldeko bazkideak egindakoak dira eta Lemoako Jubiladuen Etxeko goiko solairuan ikusi ahal izango dira hilaren 14tik hasi eta hurrengo lau eguaztenetan.

Hilaren 14an, izan da lehenengo proiektuoa. Karlos Aretxagak *Ganzabaltarrak Val d'Aranetik* lana erakutsi eban. Hurrengo eguaztenean, hilak 21, Txutxi Valderramaren lana *Esqui de montaña: años 80* egongo da ikusgai. 28an, Arkaitz Izagirreraren txandea izango da eta honek *Alpeak: Espolon Frendo* lana eskeiniko dau. Amaitzeko, Miren Garbiñe Etxebarriak *Mendia ez da muga* izeneko proiektuoa erakutsiko dau abenduaren 12an..

AUTOAK

Igorreko I Racing Slaloma jokatuko da

Erredakzioa

Gorbealde Racing Automobilismo-zaleen Alkartea antolatuta, Olabarriko zirkuituan slalom motako lasterketa izango da hilaren 17an. Slalom hau puntuagarria izango da Bizkaiko Txapelketa eta Euskadiko Txapelketarako eta bertan 20 bat autok eta 30 bat pilotuk hartuko dabe parte.

Lehenengo aldia da holango racing bat egiten dala Igorren. Izan be, Gorbealde Racing alkartea nahiko barria da. "Bertakoak izanik, Arratian lasterketak antolatuteko sortu genduan alkartea" azaldu deutso BEGITURI Iker Ercilla alkarteko arduradunak.

Igorreko slaloma

Abilezi proba bat da slaloma. Konoak eta hesiak egongo dira zirkuituan eta autoak emondako norabide baten eta konoak ikutu barik egin beharko dabe euren ibilbidea,



Kartela.

ahalik eta azkarren. Oztupoak behar dan moduan gainditu ezean, penalizazioa izango dabe eta beraz, azkar egitea bezain inportantea ondo egitea izango da.

Autoak konpartidu ahal dira, edota taldeak egin. Kategoriak trazino eta autoaren motorren potentzia-

ren arabera egiten dira. Partaideen artean "bospasei" arratiar egongo dirala dino Ercillak.

Arratiako pilotuak jagokienean, Dimako Asier Tejadoren partaide-tzea espero dabe antolatzaileak. Honek BMW 325 bategaz hartuko dau parte. Hiru pilotuk eta auto bik osotuten daben talde arratiar bat be egongo da. Pilotuak Lemoako Jose Inazio Arroita eta Kepa Errekarri, eta Igorreko Iker Ercilla izango dira. Peugeot 309 eta Peugeot 205 autoakaz lehiatuko dira.

Areatzan auto klasikoak

Abenduaren 1ean izango da 2009a geroztik Real Peña Motorista de Bizkaia antolatuten dauan Areatzako auto klasikoan urteroko konzentrazioa. Auto klasikotzat 25 urte baino gehiagokoak jotzen dira eta aurten 25 inguru espero dabela emon deutso jakitera BEGITURI Txomin Goti motorzaleen alkartekoak.

FUTBOLA

Arratia goiko postuetan

Clara Luja Azpiri

Ligako zazpi partidu jokatuko ostean laugarren dira Arratiako neskek. Gizonak barriz, bederatzi partidu jokatuta seigarren dagoz sailkapenean.

Arratiako اندرازkoak

Arratia futbol taldeak Euskal Ligako zazpigarren partidu jokatuko eban zemendiaren 10ean eta Bizkerre taldeari irabazi eutsan hiru eta bi. Aurreko partidu be irabazi eban (Añorga B-ren kontra 0 eta 5) eta sailkapenean gora egin dau taldeak, laugarren postuan kokatuz.

Guztira sei partidu jokatuko dabez, horreetatik hiru irabazi, bat bardindu eta beste bi galdu. Hurrengo partidu Touring taldearen kontra izango da kanpoan.

Arratiako gizonetakoak

Gizonetako taldeak, barriz, galdu egin eban Mungia A-ren kontrako partidu, 1-0. Lurraldeko Lehentasuneko Mailaren bederitzagarren jardunaldia izan zan. Partidu honen ostean Arratia sailkapenean seigarren postuan geratzen da. Arratiako gizonetakoak jokatuko dituen azken bost partiduetatik bat bakarrik irabazi dabe (Abanto taldearen kontra) hurrengo biak bardindu eta azkenengo biak galdu. Hurrengo partidu Union Sport San Vicente taldearen kontra izango da Igorreko Urbieta zelaian, zemendiaren

17an, arrastiko 17:30ean.

Harrobia Lemoan

Harrobi Futbol Klubak, garagarrik honetan sortutako taldeak zortzi talde ditu. Guztira 95 ume dira, kategoria desbardinetan. Eskola mailako hiru talde dagoz eta honek ez dabe lehiaketetan parte hartzen. Benjamin talde bi, Alebin kategoriako beste talde bi eta lehiatzen dan Infantil kategoriako beste bat dago. Alebin B zein Benjamin B taldeak mistoak dira, hau da, neska-mutikoak alkarregaz jokatuten dabe. Orain arte partidu bi jokatuko ditue eta hilaren 17an Lemoan jokatuko dabe barri Benjamin talde biak eta talde Infantilak. Alebin A taldeak barikuan, hilak 16, jokatuko dau Arrigorriagan eta B taldeak zapatuan Galdakaon.

axular
kultur elkaro

Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

indar
instalazio elektrikoak

Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indars@indars.es ■ www.indars.es

AKETEGIA
GAY & LORA
IGORRE

Emilio Goitia banatzaile ofiziala

San Miguel

Ardoak Edariak

94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN

ZUZENBIDE

ZERGA ETA DOKU KONSTURTAN
ONDARUN HIGUZZINEN
ASIGURUTAN

Sabino Arana, 3/3. 48171 41 - Fax: 94 673 64 01 - 41616 6099

Jose Luis Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia

94-673-70-87
609-79-40-54

ekin s.a.
CONSTRUCCIONES

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIKAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASORIKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

Ituriztze barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

Pinturas Anatia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

KIROL ASTEA

Aurrera doa Lemoako kirol astea

Erredakzinoa

Kirola osasungarria dala eta kirola egiteko ohitura bultzatzeko asmotan Lemoako Udalak kirol astea antolatu dau hilaren 12tik 18ra. Horretarako, herriko kirol arteen laguntza izan dau eta Ganzabal Mendi Taldeak, Harrobi Futbol Klubak, Pelota eskoleak eta Txirrindulari arteak kirol horreez lotutako ekintzak antolatu dabez.

Arratiatik kanpoko kirolariak be etorriko dira Lemoara, hemen



Kirol astearen egitaraua.

hain zabaldua ez dagozan kirolak ezagutzen emotera. Esaterako, Athleticoko neska futbolariak hilaren 16an izango dira Lemoan, eta halterofilia erakustaldia ikusteko aukerea egongo da hurrengo egunean edota saski baloian jokatuete Arlonagusian hilaren 18an.

Alde teorikoa be landuten da jardunaldi honeetan. Holan, "Medikuntza eta kirol metodologia eskola adinean" edota "Ariketa fisikoa egiteko jarraibideak" izeneko berbaldiak entzuteko aukerea egon da. Hilaren 15ean, barriz, "Elikadura kirolean" landuko dabe eskolan eta 16an, nagusai zuzendutako berbal-di batek zarratuko dau alde teorikoa.

Egitaraua

Zemendiak 15, eguena

12:00etan, "Elikadura kirolean". Eskolan. Eskolak eta Lemoako Udalak antolatuta.

Zemendiak 16, barikua

09:00etan, nagusai zuzendutako berbaldia. Jubiladuen etxean Lemoako Udalak antolatuta.

10:00etan, Athletic Club-eko futbolariak (neskak) eta pelotari profesionala eskolan. Harrobi FK-k antolatuta.

17:00etan, futbolin erraldoia kirol-

degian. Harrobi FK-k antolatuta. **21:00**etan, bertso pelota kiroldegian. Pelota eskolak antolatuta.

Zemendiak 17, zapatua

10:30ean, halterofilia erakustaldia. Kiroldegian.

12:30ean, lasterketea. Eskolan. Atletismo eskolak antolatuta.

17:00etan, bizikleteagaz olgetan. Kulturgunean. Txirrindulari arteak antolatuta.

Zemendiak 18, domekea

09:00etan, mendi urtekerea Zeberio-Lemoa Ganzabalek antolatuta.

10:00etan, saskibaloia Arlonagusian Sasaki baloi arteak antolatuta.

12:30ean, herri kirol erakustaldia Atxeta plazan.

SOKATIREA

Euskadiko goma gaineko txapelketea Ermitabarrin

Erredakzinoa

Zeberioko Ermitabari auzunean Euskadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketea jokatu da hilaren 17an, arrastiko bostetan. Txapelketea 4 x 4 motakoa izango da, hau da, lau tiralarik osotuko dabe talde bakotxa eta gizonezkoak bakarrik jokatu dabe txapelketea hau. Talde bakotxak 320 kg.ko gehieneko pisua euki ahal izango dau. Finala 25ean jokatu da Oiarzunen.

ZIKLO-KROSA

Hasi da 2012-2013 denporaldia

Julen Bilbao

Hasi da ziklo-kros denporaldia Euskal Herrian eta, beronegaz batera, gure inguruetak landak txirrindulari gogor eta kementsuz beteten ikusteko sasoi heldu da. Holan, lehenengo hitzordua urri bigarrenaren 27an izan zan Lezaman, zirkuitu gatz baina dibertigarri baten, parte hartzaileen eretxian.

Arratiarrak mailea emon dabe Euskadiko txapelketan hasikeratik eta kategoria guztietan. Izan be, Lezamako probako Elite mailan Dimako Naia Alzolak bigarren postua lortu eban andrazkoetan eta Igorreko Erlantz Uriartek hirugarrena gizonetakoetan. Elitekoen artean, era berean, kontuan hartzeakoak izan ziran Manu Quintanillak eta Alberto Hierrok egindako postuak: 15. eta 16., hurrengorik hurrengo. Gainerako kategoriei jagokienez, Mikel Nuñez zeberioztarrak eta Lemoan bizi dan Mikel Epalzak laugarren eta bostgarren egin eban Master-30 mailan; eta Master-50 mailan Opel Ibaigane taldeko Jose Antonio Mazaira portugaletarrak irabazi eban.

Ziklo-krosari arratiar gehienak zapatuko hantetako mina ahaztu eta Karrantzan barriro be lupetz artera sartu behar izan eban domekan, urri bigarrenak 28, nazioarteko zirkuituan puntuagarria dan proban. Bertan, aitzatekoak izan ziran Opel Ibaigane taldeko

Erlantz Uriarteren seigarren postua Elite mailan eta Jose Antonio Mazairaren lehenengo postua Master-50ean. Master-30ean Nuñezek eta Epalzak bostgarren eta zortzigarren egin eban.

Superprestigio probak

Zemendiaren lehenengo ategienean Espainiako Superprestigio txapelketaren barruan dagozan probak jokatu ziran Laudion eta Muskizen. Han be sasoi onean dagozala erakutsi eban gure txirrindulariak, euriari, lupetzari eta zoruaren labankortasunari aurre eginda. Erlantz Uriartek seigarren egin eban Laudion eta laugarren Muskizen; eta Naia Alzolak, barriz, zazpigarren eta seigarren. Eliten be,



Mikel Nuñez.

Julen Zubero lemoaztarra 14. heldu zan Muskizen, baina Laudion lasterketatik kanpo gelditu zan, arazo mekanikoakaitik.

Bestalde, Elorrioko lasterketea denporaldiko garrantzitsuenetarikoa dogu; Superprestigiorako puntuagarria da, eta momentuko ziklo-krosari onenak batu ebazan joan dan domekan. Bezperan, baina, zemendiak 10, batzuk Arbuluko zirkuitu estu, latz eta arrisksuan neurtu ebezan indarrak. Arabako proba horretan Erlantz Uriartek bigarren egin eban eta Naia Alzolak, hirugarren; eta aitatu beharrekoak dira baita be Jon Mikel Kareagaren 6. postua 23 urtetik beherakoetan, eta Master-30eko lehia ikusgarrian Mikel Nuñezek eskuratutako bigarren postua eta Mikel Epalzaren hirugarrena.

Ez zan erreza Elorrioko Arbuluko emoitza errepikatzea, baina gure ahalegina egin eban estatu mailako faboritoen kontra, egunik hotzenean gainera. Benetan be meritu handikoak izan ziran, beraz, Uriarteren bosgarren postua eta Alzolairen zazpigarrena; baita Mazairaren bosgarrena be, Master-50eko goi-mailakoak egin eban lasterketa itzelean. Beste kategorietan be arratiarrak maila onean ibili ziran.

Edozelan be, ziklo-krosa hain kirol gogorra izanda, lasterketak amaitze hutsa bada garaipena. Horregaitik, goraiatzekoa da, eta zorientzekoa, diziplina honetan dabilzan txirrindulari guztien esfortzua.

Badatoz, badatoz...

Aurten be lapikorik onena egiteko Merkalabelako txorizo eta odolosteak daukoguz

Saltxitxak, hanburgesak, baserriko okelea, untxiak, baserriko arraultzak, artxoak...

MERKALABELA HARATEGIA
Lehendakari Agirre 15 - Igorre
Telefona: 94 673 63 10

SANTA ZEZILIA

**Kontzertuak nongura
Santa Zeziliaren inguruan**

Zemendiaren amaierako udagoieneko egun labur eta hotzetan ospatuten da Santa Zezilia eguna, musikarien zaintzailea. Asko dira Arratian musika jo edo kantuan ibiltzen diran abesbatzak eta egunotan musikaz beteko dabez kaleak. Arratiako Musika Eskolea, Areatzako Bandea edo Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatzaren emonaldiak entzuteko aukerea izango dogu hamabostaldi honetan.

Erredakzioa

Musikarien zaindarien eguna, zemendiak 22, eguna da aurtentzen, baina ospakizunak lehenago hasten dira. Arratiako Musika Eskolako hilaren 19an eta 20an ospatuko dau santearen eguna

"maila amaierako kontzertua 19an izango da, Areatzako Udal Aretxean, arrastiko zazpitan eta han, partaidei diplomea bananduko jakie" azaldu deutso BEGITURI Izaskun Arriagak, Arratiako Musika Eskolako arduradunak.

Zemendiaren 20an ikasle bako-

KORU MUSIKA KONTZERTUAK
Luis Iruarrizaga Abesbatzaren eskutik

Santa Zezilia eguneko Kontzertuak

**Arteako Umeak
Igorreko Ludotekako Umeak
Arratiako Musika Eskolako Abesbatza
Luis Iruarrizaga Abesbatza**

ZEMENDIAREN 17a, ZAPATUA ZAZPI T'ERDIETAN (19:30etan) 17 de NOVIEMBRE, SÁBADO SIETE TREINTA TARDE (19:30 H.) ARTEAKO ANDRA MARI ELEIZA	ZEMENDIAREN 24a, ZAPATUA ZAZPI T'ERDIETAN (19:30etan) 24 de NOVIEMBRE, SÁBADO SIETE TREINTA TARDE (19:30 H.) IGORREKO KULTUR ARETOA
---	--

Luis Iruarrizagak emongo dituan kontzertuen kartela.

ZINEKLUBA

**Zoramena
da Igorreko
zineklubaren
XVI. zikloaren
izenburua****Aritz Arrizabalaga**

Aurreko danak legez, zineklub honek be hiru emonaldi izango ditu eta jatorrizko bersinoan eta azpittuluakaz emongo dira. Zemendiaren bigarren hamabostaldi honetan izango dira pelikulok Lasarte Aretxean arrastiko 20:00etan. Lehenengo filma hilen 15ean, bigarrena 22an eta azkena 29an.

Gai zabala da zoramena, zoramena mota asko dagozalako, baina, oro har, gizarteak zorotzat arrazoia galdu dauan personea dauka. Eta hurrengo zineklubeko ziklora betaurreko horreek ipinita agertzen danak, seguruenik, gauza asko itxiko ditu ikusi eta ulertu barik, edizino honetako-film bakotxean oso zoramena desbardinak agertuko diralako. Ez diralako bardinak Randle Macmurphyk (Jack Nicholson) zoroetxean gainerako zoroakaz eta erizainburuagaz daukan portaerea eta Erikak (Isabelle Huppert), bere amagaz bizi dan piano irakasleak, daroan bizitza bikotxa. Eta lotura txikerragoa da Daniel Johnston kantautoreak deabruagaz daukazan alkarrizketakaz lotzean badoguz aurreko pelikula biak.

Zineklubeko ziklora aitatu betaurrekoakaz doanak lotura bako hiru film ikusi dituan sentipena baino ez dau etxera eroango azkenengo egunaren ostean. Baina XVI. ziklo honetarako beste betaurreko batzuk ipini ezker, erabateko lotura agertuko jaku begien aurrean. Zoramena ez dalako arrazoia galtzea (bakarrik). Zoramena gizarteak markatzen dituan patrietatik kanpo bizitea da.

Eta definizino horretan bai, definizino horretan Milos Formanen *One Flew Over the Cuckoo's Nest*, Michael Hanekearen *La pianiste* eta Jeff Feuerzeigen *The devil and Daniel Johnston* esku-eskutik doazen hiru pelikula dira.

BERTSOLARITZEA

**Iñaki Iturriotzek Basaurin, lehenengo
finalaurrekoan, kantauko dau hilaren 18an****Erredakzioa**

Datorren zemendiaren 18an, 17:30ean, Basauriko Kiroldetxean jokatu da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako lehenengo finalaurrekoa. Honeek dira bertan kantauko daben bertsolariak: Eneko Abasolo, Onintza Enbeita, Arkaitz Estiballes, Oihana Bartra, Gorka

Lazkano eta Iñaki Iturriotz.

Zemendiaren 3an, zapatu arrastian jokatu zan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako bosgarren eta azken kanporaketeta Amorebieta-Etxanoko Zelaieta zentroan eta Oihana Bartra bilbotarrak irabazi eban finalaurretarako zuzeneko azken txartela. Honeek dira ba finalaurrekoetan abestuko

daben 18 bertsolariak:

2010eko finalistak:

Arkaitz Estiballes.
Etxahun Lekue.
Jone Uribe.
Onintza Enbeita.
Eneko Abasolo "Abarkas".
Peio Ormazabal.
Beñat Ugartetxea.
Miren Amuriza.

Kanporaketetako irabazleak:

Iratxe Ibarra.
Ibon Ajuria.
Fredri Paia.
Igor Elortza.
Oihana Bartra.

Puntuazioaren arabera:

Gorka Ostolaza.
Gorka Lazkano.
Arrate Illaro.
Joseba Artza.
Iñaki Iturriotz.

txak bere herriko musika eskolan ospatuko dau eguna. "Aurten jaialdi berezi bat antolatu dogu eta *The Beatles* taldearen abestiak eskeiniko doguz" dino Arriagak.

Zeanuriko Musika Eskolakoak, barriz, kalejirak egingo dabez herriatik zehar. Santa Zeziliaren bezperan kalejiera 17:30ean eta ostean merienda egingo dabe eta egunaren hurrengo zapatuan, hilak 24, kantu-potea eta bazkaria egingo dabe.

Luis Iruarrizaga Abesbatza

Igorreko Luis Iruarrizaga Abesbatzak kontzertu bi eskeiniko ditu patrioiaren omenez. Eurekatz kantuan, Arteako umeak, Igorreko ludotekako umeak eta Arratiako Musika Eskolako Abesbatza izango dira. Lehenengo kontzertua Arteako Andra Mari Eleizan izango da, zemendiaren 17an arrastiko 19:30ean. Bigarrena, barriz, Igorreko Kultur Etxean hurrengo zapatuan, hilak 24, ordu berean.

Areatzako Banda

Areatzako Bandak kontzertua eskeiniko dau Areatzako Eleizan zemendiaren 24an arrastiko zazpi t'erdietan.



Iñaki Iturriotz.

Argazkia: Iñigo Fdez de Martikorena.



MUSIKEA

Aitamen berezia Bidean Galduta eta Esti eta Olatzek Imanol Cover lehiaketan

Euskadi Irratiak eta Imanol Gogoratuz taldeak antolatutako Imanol Cover lehiaketako finalera Arratiako talde bi heldu ziran, Bidean Galduta Lemoako taldea eta Esti Olibares eta Olatz Goikoetxea Zeanuriko bikotea, hain zuzen be.

Erredakzioa

Biak aitamen berezia izan eben. Ai-

nara Ortega Gipuzkoakoak irabazi eban lehiaketea. Imanol Larzabalen kanten bersinoak abestu behar

dabez partaideak. Bidean Galduta taldeak "Mendian gora haritza" kantau eban finalean eta Esti eta Olatzek "Baionatik Bilbora".

Telebistan eta irratian entzungai Zemendiaren 10ean izan zan Donostiako Lugaritz Kultur Etxean finala eta kontzertu hau irratirako eta

telebistarako grabau zan. Holan, Euskadi Irratian entzungai egongo da eta ETB1en ikusteko aukerea be egongo da.



Bidean Galduta taldeko Jokin Uriarte, Endika Parra eta Unai Uriarte.



Olatz Goikoetxea eta Esti Olibares.

IRAKURLE KLUBA

Itxaso Martin idazlea Bedian

Erredakzioa

Zemendiaren 28an egingo dau Bediako Irakurle Klubak hurrengo saioa. Oraingoan, idazle konbidaua Itxaso Martin izango da. Egun horretan, egile donostiarrek argitaratu barri dauan *Ni, Vera* liburuaren gainean egingo dau berba herriko liburutegian.

Elkar argitaletxeagaz ateratako lan honetan psikiatria eta emakumea gaiak landu ditu; izan be, gai horreei

buruzko doktore-tesia be prestatzen dabil. Martinen lehenengo liburua dogu *Ni, Vera*. Orain arte kazetari lanetan ibili da, irradi zein telebistan.

Irakurle Kluba bi hilero batzean da, eguaztenez, arrastiko zazpi t'erdietan. Saioak irekiak dira. Julen Gabiria idazleak bideratuta, bertara hurreratuten diranak aukerea eukiten dabe konbidautako idazleagaz berba egiteko; edota, liburua irakuri izan ezker, eretiak zein zalantzak komentetako.

MUSIKEA

Musika tresna egileen inguruko jardunaldiak eta erakusketea

Erredakzioa

Txoke alkarteak eta Igorreko Udalak Euskal Herriko musika tresna egileen inguruko jardunaldiak eta erakusketea antolatu dabe.

Jardunaldiak hilaren 16tik 18ra izango dira. Astegoen horretan, kontzertuak (zapatu eta domekan) eta mahai-inguruak, Euskal

Herriko eta atzerriko astisau, museologo eta jakitunakaz antolatu dira. Tailerrak be egongo dira Igorreko Kultur Etxean "artisansen egoerea jentek ezagutu dagian".

Erakusketea, barriz, zemendiaren 12tik dago ikusgai Erakusketa Gelan eta 23ra arte egongo da goizeko 10:00etatik arrastiko 20:45era.



Musika instrumentuak.

DUNBA

Urria, gaztainak batzeako hila



Kirikiñoak.

Dimako eskolako 6. mailako ikasleak

"Zaharrak kontetan dabe, gazteak ziranean, udagoiengan mendiak

gaztanez beteten zirala. Haizeak hegotik jotzen ebanean, gaztaina –oskol ederrez jantzitako gaztainondoak erantzten hasten zirala dinoe, ia biluzteraino. Gaur egun

be, udagoienero, ikuskizuna errepikatzen da baina ez sasoi bateko dotoreziagaz. Mendietan gero eta gaztainadi gitxiago ikusten da. Izan be, Euskal Herriko gaztainondoak – besteak beste-gaixo dagoz".

Gaztainondo batek 14 eta 20 metroren arteko altuera izan daike. Laurogei urte bete arte nahiko arin hazten da, gero astiroago.

Euskal Herrian miloeka gaztainadi egoan baina, orain dala 70 urte inguru, asko desagertu egin ziran "oinbeltz" gaixotasunaren ondorioz.

Gure herrian be ez dago askorik, baina batzuk bai eta, azken urteetan legez, aurten be, Dimako eskolako ikasle eta irakasleak "Gaztaina eguna" ospatu dogu.

Urri bigarrenaren 10ean, Lehen Hezkuntzakoak, ibilbide polit bat egin genduan gure herritik

zehir.

Eskolatik urten eta Lamindao auzora joan ginan, bertan dagoan gaztainondo bateko gaztainak batzera. Gaztainak "kirikiño"en barruan egoten dira. Han ibili ginan kirikiñoak hankakaz zabalitzen pintxau ez egiteko! Antxina kirikiñoak batzeako gaztainondo azalez egindako tresna bat erabilten eben. Tresna honeri Diman "txubelazue" deitzen jako.

Otzarak beteten ziranean, burdian hustu eta baserritik hur egoten zan "kirikiñoesira" eroaten ziran gaztainak. Esparrua iratzez eta adarrez estaltzen eben basoko piztietatik babesteko.

Gaztainak hainbat belaunalditan gosea kendu eben, gordinik, erreta, egosita... jan daitezke eta gaztaina sikua birrinduz uruna be lortzean eben "gaztaina ogia" egiteko.

Frutu bilketea egin eta gero jai ospatzen zan, gaztaina erreak

jan eta alboka eta panderoaren doinuagaz jantza egiten zan.

Guk, gaztainak boltsa eta motxiletara batu genduzan eta Lamindaon batutako gaztainakaz Indusira joan ginan, hara Haur Hezkuntzako ikasleak be hurbildu ziran. Sua prest egoanez, gaztainak "danbolinera" sartu, apurka-apurka erre eta gozogojo jan genduzan "gorringoak".

Gure arbasoen ohiturak gogoratuz eta gaurkotuz egun ederra igaro genduan, benetan!!



AGENDEA

ZEMENDIAK 15

AREATZA

19:00etan, "Emakumeen kontrako biolentzia ekonomikoa" berbaldia. Hizlaria: Idoia Ruiz, Areatzako Emakumeen Foroa. Udaletxean.

BEDIA

17:00etan, hilaren 30era arte, Pala eskolan izena emoteko epea zabalik. Liburutegian.

IGORRE

20:00etan, zinekluba *One flew over the cuckoo's nest*.

LEMOA

12:00etan, "Elkadura kirolean" eskolan.

ZEMENDIAK 16

AREATZA

22:30ean, Napoka Iria taldea. Kontzertua gaztetxean.

IGORRE

19:00etan, Konsumo taldea. Bilerean Kultur Etxean.

LEMOA

09:00etan, nagusai zuzendutako berbaldia. Jubiladuen Etxean. 10:00etan, Athletic Club-eko futbolariak (neskak) eta pelotari profesionalak eskolan. 17:00etan, futbolin erraldoia kiroldegian. 21:00etan, bertso pelotea kiroldegian.

22:00etan, Larregiren kontzertua. Gaztetxean.

ZEBERIO

19:00etan, Oscar Vizarragaren berbaldia "Jitoen historia. Atera ziran lekutik Euskal Herrira heldu ziran arte XIV. mendean". 22:30ean, kontzertua Los Fanys eta Punto Muerto. Plazan.

ZEMENDIAK 17

ARANTZAZU

14:30ean Bilduk antolatuta bertso bazkaria Andoni Egaña eta Sebastian Lizasogaz.

ARTEA

19:30ean, Luis Inuarizaga Abesbatzaren kontzertua Andra Mari eleizan.

IGORRE

15:00etan Gorbealde Racing Alkarteko antolatuta Gorbealde Racing Slalom-a eskoletan.

LEMOA

10:30ean, halterofilia erakustaldia kiroldegian.

12:30ean, lasterketea. Eskolan. 17:00etan, bizikleteagaz olgetan. Kulturgunean.

ZEBERIO

17:00etan, Euskadiko Goma Gaineko sokatira

tapelketea. Emitabarin.

ZEMENDIAK 18

ARRATIA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Arratiako Mendiak eta Herriak, Zeberio-Bedia 8. zeharkaldia.

LEMOA

09:00etan, mendi urtekera Zeberio-Lemoa.

10:00etan, saskibaloia Arlonagusian. 12:30ean, herri kirol erakustaldia Abxeta plazan.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldeak antolatuta, Arriorriaga-Upo-Mandoia mendi urtekera. Babajana Emitabarin.

ZEMENDIAK 19

IGORRE

19:00etan, andrakanako indarkeriaren kontrako adierazpen instituzionala irakurriko da ohiko plenoan.

ZEMENDIAK 20

LEMOA

17:15ean, gurasoentzako ikastaroa umeen hizkuntza ohituretan eragiteko udaletxean.

ZEMENDIAK 21

LEMOA

19:30ean, Olentzero batzarra udaletxean.

20:00etan, Txutxi Valderamaren proiektua *Esqui de montaña en los 80*. Jubiladuen eteko goiko solairuan.

ZANURI

17:30ean, kalejireta eta ondoren merienda musika eskoleak antolatuta.

ZEMENDIAK 22

BEDIA

17:00etan, Abenduaren 12ra arte, Gabonetako bartel lehiaketan parte hartu daben bartelen erakusketea.

IGORRE

20:00etan, zinekluba *La Pianiste*. Lasarte Aretxean.

LEMOA

19:30ean, Miriam Herbonen berbaldia "Tratu barrak ala genero indarkeria?" Jubiladuen gaineko aretoan.

ZEMENDIAK 23

AREATZA

18:00etan, Beldur Barik lehiaketaren sari banaketara Udal Aretxean.

BEDIA

18:00etan, Gabon bartelen sari banaketara.

Liburutegian.

19:00etan, Erregeen kabalagan parte hartzeako batzarra. Eskoletan.

DIMA

20:30ean, Miren Urrestiren berbaldia "Indarkeria sexistari aurre egiteko tresnak" liburutegian.

21:30ean, poteoa. 22:00etan afaria Indusiko txokotan.

ZEMENDIAK 24

AREATZA

05:30ean, Gorbeako Parkeak antolatuta Gorbeako kurutzera urtekera goizaldean.

19:30ean, Areatzako Bandaren kontzertua eleizan.

23:00etan, Gabacho Conecion-en kontzertua Bixer tabernan.

ARTEA

17:30ean, Zine-foruma Kultur Etxean. *Agua* pelikula.

IGORRE

19:30ean, Luis Inuarizaga Abesbatzaren kontzertua.

Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta umeen urtekera. Las Muñecas. Alen (803 m).

ZANURI

12:30etatik aurrera, kantu-poteoa.

ZEMENDIAK 25

ARRATIA

11:30ean Areatzako parkeak Marba Morea. 12:00etan, Dimako herriko plazatik Marba Morea. 11:30ean, Lemoako udaleko plazatik Marba Morea Igotzera.

IGORRE

13:00etan, Emakumeak Indarkeriaren Kontrako

Nazinoarteko Eguneko konzentrazioa.

17:00etan, umeentzako zinea *Freddy Igeldegi*.

19:30ean, zinea *Bypass* Lasarte Aretxean (azpituak gaztelaniaz).

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, upeltegira urtekera. Oion-Laguardia GR-38.

18:00etan, Apika taldearen eskutik Ipuin

kontalaria *Ni neu, zu zeu* Elizondoko Kultur Gunean.

ZEMENDIAK 27

LEMOA

17:15ean, gurasoentzako ikastaroa umeen hizkuntza ohituretan eragiteko udaletxean.

ZEMENDIAK 28

BEDIA

19:00etan, Irakurle Klubean Ibaso Martin egongo

da *Ni, Vera* liburuen gainean berba egiteko.

Liburutegian.

LEMOA

20:00etan, Arkaitz Izagirren proiektua *Alpeak: Espolan Frendo*. Jubiladuen Etxeko goiko solairuan.

ZEMENDIAK 29

AREATZA

19:30ean, Zine-foruma *Luces de la ciudad* pelikula udaletxean.

BEDIA

17:00etan, tailerra: oharrik itxeko panela.

Liburutegian.

IGORRE

20:00etan, zinekluba *The devil and Daniel Johnston*.

ZANURI

19:00etan Marcela Lagarderen berbaldia, Kultur Etxean.

ZEMENDIAK 30

AREATZA

22:00etan, Stranna Band folk hirukotea The Quiet Corner tabernan.

BEDIA

19:00etan, "Andren aurkako indarkeriari aurre egiten" berbaldia. Liburutegian. Murgibe.

IGORRE

19:30ean, hileko azken barikua, Herriak antolatuta preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.

20:00etan, Genero Bardintasunaren Sustapena Kirolean. Diagnostikoaren emoitak eta lanerako proposamen aurkezpen ekitaldia. Lasarte Aretxean.

ZEBERIO

20:00etan, hileko azken barikua, Herriak antolatuta, preso eta errepresaliaduen aldeko konzentrazioa.



Lingua Nabajorum antzezlanaren hilaren 23an Igorren

Topagunea Euskera Elkarten Federazioak antolatutako Udagoieneko Osteraren 13. edizioaren barruan *Lingua Nabajorum* antzezlanaren Igorrenko Lasarte Aretxean egongo da ikusgai zemeniaren 23an arrastiko 20:00etan. Mikel Martinez eta Patxo Telleriak osatzen daben Ez dok Hiru Bikoteatroa taldeak *Lingua Nabajorum* (euskerearen historia zoroa) estrenau barri dau. Komedia honetan be euskerea da *leit-motiva*, aurreko lanetan bezala, *Euskara-zetamol*, *Larru Haizetara* eta *Euskara Sencilloaren Manifestoa*. Patxo Telleriak idatzi dau *Lingua Nabajorum*, bi aktoreen arteko alkarizketa absurdoa, azkarra eta ironiaz beteta. Bi personajeak euskerearen jatorriaz eta historiaren egiten daben interpretazioak ikus-entzuleen barrea eragingo dabe.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALGAI

Garaje partzela salgai Lemoa erdigunean. 660 549 695 Bego.

SALGAI

Haretzeko arasa ederra salgai. 139zm zabal, 50 sakon, 193 altuera. Ikusgai dago Elexalde 10ean, Igorren. 800 €. 615 731 182.

DANERIK

BASERRIA ALOKATU GURA DOGU

Alokairuan dagoan baserri edo etxea gura dogun bikote bi gara. 685 707 176 Eider.

GARBIKETAK

Etxeak, portaleak, bulegoak... garbitan dodaz. Etxeko beharrak egin eta adinekoak be zaintzean dodaz. Telefonoa 666 238 081 (Cristina).

UMEAK JAGOTEN DODAZ

Arrastiko ordutegian umeak jagon edo klase partikularrak emoteko prest nago. Kotxeduna. Interesdunak deitu

zenbaki honetara 600 759 434 (Naiara) Telefonoa.

LEKU BILA

Txakurrak eukiteko leku txiki baten bila nabil (Iker 680 518 473).

UMEEN ZAINZAK

Umeak esperientzia daukan neska bat zuen seme-alabak jagoteko prest dago. kotxeduna (Pili 686 728 843).

KLASE PARTIKULARRAK

Euskal Filologian eta Haur Hezkuntzan titulauako neska gaztea naz eta klase partikularrak emoten dodaz. Esperientziaduna. 652 744 411 (Itziar).

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Bypass* filmarako.

Unai Totorika (Zeanuri)
Zefe Ziarrusta (Dima)



2 Topaguneak emondako bina sarrera *Lingua Nabajorum* antzezlanerako.

Iban Gortazar (Areatza)
Begoña Pedrosa (Areatza)




Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 10 urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA


- 1.- Gordon. Berrogeta hamar erromatar.
- 2.- Zezenak bi. Musika nota. 3.- Gar. Apa, mosu. 4.- Oxigenoa. Moztu.
- 5.- Zeozer. Nitrogenoa. 6.- Eki.
- 7.- Birritan, marmar. Barazki mota bat. 8.- Txarra ez dana. Zati.
- 9.- Konsonantea. Edadeko gizon.

GOITIK BEHERA

- 1.- Giltzea. Entregau. 2.- Literaturan, olerki tipo bat. Gaur. 3.- Buruhazur. Bokala. 4.- Euskera zaharrean, txakur. Balio Erantsiaren Zerga. Zidarra.
- 5.- Letra bat. Absolbidu.
- 6.- Informatikan erabilten dan terminoa. Argidun astro. 7.- Antxinako hizkuntza. Bihi.



Topau arrantzeagaz lotuta dagozan zazpi gauzaren izenak.



OPEL

Ibaigane, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 38 15

Hezi ta Hazi Akademia

Eskola Laguntza

94 656 69 18
heztahazi.com
heztahazi@gmail.com
Eguskiza Meabe 2, Lemoa

expert ARRATIA

E-posta: expertarria@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

ARA OTZ

Landegian O Jatorria!

Berrito Uperana 2.B. - 48141 Dima - Bizkaia www.aramotz.com

begitu¹⁰ urte

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ESKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Airezatutako sistemak - Aire zurgintza zentralizatuak
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdia, Pab. 07
Tel. Fax 94 673 62 76
619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Gure Ikastetxeak

Arratiako Herri ikastetxeak 2 urtetik 10ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoa

Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio

I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre

Areartzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri

J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrazko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

ANDONI CINTADO ARTETXE

"Burua ondo eukitea lehenengo gauzea da"

13 urteko Zeberioko gazte honek afizinoa baino askoz gehiago egiten jakon taekwondoan konpetiduten dau. Igazko denporaldian hamasei burrukatik hamalau irabazi ebazan. Aurtengoan, danak irabazi ditu. Azkenengoa, urri bigarrenaren 27ko Espainiako Txapelketea izan zan Gandian (Valentzia) eta abenduaren 15ean jokatu dan Junior mailako Euskadiko Txapelketan parte hartuko dau.

Irati Urien**Zergaitik kirol hau?**

Aitak be txikitan judoa eta arte martzialak praktiketan ebazan eta pentsetan eban kirol ona zala, osoa. Horregaitik apuntau egin ninduan, lehenengo Arrigorriagan eta gero Basaurin.

Zenbat urtegaz hasi zinan?

6-7 urtegaz hasi nintzan eta orain 13 daukadaz.

Ze mailatan konpetiduten dozu?

Ni teoriar Kadetea naz oraindino baina aurtun Juniorretan be hasiko naz. Gogorra izango da. Igaz be irabazi neban Euskadiko txapelketea baina Espainiako galdu egin neban. Junior kategorian, urte baten Munduko Txapelketea eta hurrengoan Europako egiten da. Nik garriko baltzeko lehenengo *dan*-a daukat eta hilaren 24an bigarren *dan*-erako azterketea egingo dot.

Ni nagoan kategorian ez dago Munduko txapelketarik. Europako dago baina bi urterik behin egiten da eta aurtun ez da toketan.

Jente askok praktiketan dauan kirola da taekwondoa?

Bai eta taekwondoan Euskal Herriak oso emoitza onak lortuten dauz, maila guztietan.

Basaurin zagozala esan dozu. Ze taldetan?

The Masters dauka izena. Egun-doko emoitza onak eukiten dauz. Munduko hiru txapeldun bertakoak izan dira. Nire irakaslea Juan Solis da eta Bartzelonako Joko Olinpikoetan bigarren geratu zan, munduko txapelduna izan da... oso curriculum ona dauka. Bere arreba Rosario Solisegaz batera, Euskal Herriko lehenengo Munduko txapelduna izan zan.

Zenbat denpora dediketan deutzazu?

Normalean, astelehenetan ordubete, eguaztenetan beste bat eta barikuetan ordu bi. Gehiago sakatu behar dodanean oster, ordu gehiago sartzean dodaz. Euskadiko Selekzioagaz domeka batzuetan be entrenetan dot.

Emoten deustu denporarik zeure gazetarako? Lagunak, ikasketak...

Kontua da "nire gauzak" taekwondoa dala.

Orain baino lau kilo gitxiago euki dozuz, dieta zorrotz bat dala eta.

Ez deustue hori eskatuten baina taekwondoa kategorietan bananduten da eta kiloka doa. Maiztean Euskadiko txapelketea euki neban eta orduan 44 kilo pisatuten neban. Gero, 41era bajatu neban pisu hori. Nire kategoria *Gallo* deituten da eta 37 kilotik 41era doana da. Udan txarto pasau dot dieta horregaz, sano gogor egin jatan. Ez neukan koiperik eta, adibidez, surf egiten joaten nintzanean hotz handia pasetan neban.

Egun baten adibidez, zer jaten zenduan?

Armozetako 30gr zereal eta esne gaingabetua. Gero, eskolara joaten nintzan eta hamaiketako moduan fruta bat edo kaloria gitxioko barrita bat jaten neban. Bazkaltzeko, astelehenetan entrenetan nebalako pasta edo karbo hidratoak eta okela jan behar izaten neban; martitzen eta eguaztenetan, barazkiak eta okelea edo arraina. Arrastietan jogur bat eta sagar bat edo batzuetan 50gr ogi urdaiazpikoagaz. Afaltzeko tortilla frantsesa bat, arraina, gulak... edo holako zeozer. Gainera, korrika be egiten neban. Helburuak bi ziran: batetik, fondoa landutea eta gogortutea; eta bestetik, argaltzea. Hasiera baten 4 kilometroagaz hasi banintzan be, 8 bat kilome-

tro egiten amaitu neban.

Desbardintasun handia dago intentsidadean entrenamenduarekin txapelketetara?

Bai. Txapelketetan askoz be gogorrago izaten dira entrenamenduak. Ni Open askotara joaten naz. Holan, Espainiako txapelketaren aurreko astegoienean, Castelloneko Open batera joan nintzan eta astebete lehenago Riveirara (Galizia). **Honek guztiak, zure inguruan zelan eragiten dau? Zure gurasoak zeugaz mobiduten dira?** Bai. Gurasoak disfratau egiten dabe bai nire garaipenakaz eta bai kirol honegaz. Ez eurak bakarrik. Aita kubatarra da eta hango familiak be emozinoagaz segiduten dau nire ibilbidea.

Eta lagunak, zer esaten deustue?

Klasean nigaz taekwondora joaten diran lau lagun daukadaz. Honeek lagundu eta ulertu egiten nabe, baina beste batzuk "oso argal za-

goz, ez zara urtetan..." eta holangoak esaten deuste.

Gorputza jagoteaz aparte, burua be jagotea inportantea izango da.

Bai. Hori da gatxena. Txapelketetara joateko, psikologikoki be entrenetan zara. Burua ondo eukitea lehenengo gauzea da; izan be, edozein txikieriak txapelketea kakaztu ahal deustu: burruka kopuruak, nekeak, autoestimua, aurkariak... ez da erreza baina nik nahiko ondo kontroletan dot eta ondo eusten deustat presinoari. Hainbeste open eta txapelketagaz ohitu eta heldu egin naz. Orain dala urtebete sano txarto ibili nintzan; Espainiako txapelketan adibidez, oso urduri nengoan.

Zein da zure erredua?

Solis, nire irakaslea. Bariku batzuetan burrukan ikusten dot eta pasada bat da. 45 urte daukaz eta benetan be erredugarria da, oso oso ona da.



arratiako merkatarien elkarteak
www.arratia-merkatariaik.com

IGORREN EROSI

ETORRI ZURE OPARIAREN BILA!